

GURE GENEALOGIA FEMINISTAK

Mugimendu feministaren historiari buruzko ikastaroa

Mugimendu feministak, ez dira orain dela hamarkada bateko kontuak; izan ere, feminismoa emakumeek munduko herrialde guztietan aurrera eramandako borroka eta ekarpenari esker garatzen joan da; herriz herri, auzoz auzo, belaunaldiz belaunialdi. Gaur egungo feminismoak badu bere jatorria, bere testuinguru politiko, sozial nahiz ekonomikoa. Hau guztia ezagutzea, munduan zein Euskal Herrian mugimenduak izandako bilakaera eta aldarrikapenak ulertzea, etorkizuneko erronkei aurre egiteko tresna ezin hobea dela uste dugu. Ikastaro honetan, mendebaldeko mugimenduaren historiari gain, Euskal Herrian 70. hamarkadatik aurrera ezagutu dugun mugimenduaren inguruan solastuko gara, antolatzekeko modu eta aurrera eramandako borroka aztertuz. Historia ezagutzeak aurrera begiratzen laguntzen baitigu!

HELBURUAK

- Feminismoaren definizioa eta sorrera ezagutaraztea.
- Mugimendu feministaren jatorria eta historian zehar sortu diren tendentzia ezberdinen azalpena egitea.
- Euskal Herriko mugimendu feministaren errekonozimendua eta ibilbidearen ezagutza. Batetik emakumeen antolaketa nolakoa izan den eta baita garatu dituzten borroka ezberdinen inguruko dinamika eta eztabaida konkretuen ezagupena.
- Mugimendu Feministaren bilakaera eta egun mahai gainean dauden eztabaidagaien azterketa.
- Mugimendu Feministaren ekarpenak eta erronka berriak ezagutu eta hauen inguruan eztabaidatzea.

METODOLOGIA

Historia kontatzeko modu asko dauden arren, Mugimendu feministaren inguruko saio hauetan hizlarien kontakizunak garrantzi handia dauka. Hala ere, gaian zentratzeko, gai batzuen inguruko ulermen maila jakiteko zein landuko diren edukietara gerturatzeko, dinamika parte-hartzaileak ere eramango dira aurrera. Bereziki, erronken inguruko saioetan talde dinami-ken bidez emango da eztabaida, ulermena eta elkar komunikazioa lehenetsiz.

Saio hauetan mendebaldeko eta Euskal Herriko historia ezagutzeaz gain, tokiak tokikoak garrantzi berezia hartzea lehenetsiko da, garai bateko protagonistak gonbidatuz eta haien kontakizuna entzunez. Baina etorkizunera begiratu nahi duen ikastaroa ere bai izanik, herrian talde edo espazio feminista berriak sortzeko aukerak aztertuko dira parte-hartzaileekin batera.



EDUKIAK

1. Feminismoa eta Mugimendu Feministaren historia munduan (mendebaldeko jendartean bereziki) zehar. Feminismoaren hiru olatuak, eratorri ziren talde eta tendentzia feministak.

- a. Mugimendu Feministaren aurrekariak. (Iraultza frantsesa, eskubide deklarazioak ...).
- b. Feminismoaren jaiotzea (hiru olatuak, sufragismoa, Estatu Batuetako mugimendua, Maiatzak 68...).
- c. Simone de Beauvoir eta bertatik eratortzen diren teoria feministak.
- d. Gaur egun nagusitzen diren feminismoaren tendentziak.

2. Atez ate. Gure genealogia feministak hamarkadaz hamarkada.

- a. Gure genealogia feministetan barrena.
- b. Euskal Herriko Mugimendu Feministaren ezaugarri orokorrak.
- c. Iparraldeko testuingurua eta bertan sortu zen emazteen mugimendua.
- d. Hegoaldeko testuingurua eta bertan sortu zen mugimendu feminista.
 - 1. etapa: 70eko hamarkada. Kontzientzia feminista ate joka: Mugimendu Feministaren lehen urratsak.
 - 2. etapa: 80eko hamarkada. Errotzetik adarkatzera. Mugimendu Feministaren gorputzreak.
 - 3. etapa: 90eko hamarkada. Borroka fronteak ugarituz: Mugimendu Feministaren norabidea auzitan.
 - 4. etapa: XXI. mendea. Sareak eta geruzak. Mugimendu Feminista eta globalizazioa buruz buru. Mugimendua bizirik!!!

3. Maratila hautsiz. Gure borroka feministak aldarriz aldarriz.

- a. Pertsonala politikoa da.
- b. Feminismoak hasieratik kuestioan jarri dituen hainbat eztabaida.
- c. Euskal Herriko mugimendua zeren inguruan antolatu da. Ze borroka?
 - 1) Gure gorputza gurea da!
 - 2) Indarkeria sexistarik ez
 - 3) Zergatik zara heterosexuala?
 - 4) Lana soberan, enplegu duina faltan
 - 5) Martxoak 8: Aldarrikapen eguna
 - 6) Feministak plazara!

4. Feminismoaren eztabaidagaiak eta ekarpenak. Gaur egungo mugimenduak eta erronkak.

- a. Euskal Herrian egun dauden taldeei buruzko informazioa.
- b. Gaur egun, zein erronka ditu mugimenduak Euskal Herrian? Eztabaida.